


2018ko azaroan Euskal AEko industriako prezioek %0,1 egin zuten behera aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean (2018ko azaroa 2017koaren aldean) %3,2 igo ziren

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industri prezioak %0,1 jaitsi ziren 2018ko azaroan aurreko hilaren aldean. Datu horiekin, azaroko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industri prezioen aldakuntza) %3,2koa da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Analisi zehatzagoa eginda, hauek dira 2018ko azaroan prezio-hazkunderik handienak izan dituzten adarrak aurreko hilaren aldean: *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire egokitua*, %3,7ko igoerarekin; *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza*, %1,9koarekin; eta *Industria kimikoa*, %1,6koarekin.

Aldiz, hauek dira prezioetan jaitsierarik handienak eduki dituzten sektoreak:

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, aurreko hilaren aldean *Energiaren* prezioak %1,0 jaitsi dira eta *Bitarteko ondasunenak* %0,2, baina *Ekipo-ondasunen* prezioak %0,1 igo dira, nola baita *Kontsumo-ondasunenak* ere oro har, zeren *Ez-iraunkorrek* %0,1 igo diren eta *Iraunkorretan* ez den aldakuntzarik gertatu (%0,0).

Urte artean, 2018ko azaroan 2017koaren aldean, prezio-hazkunderik handienak hauek eduki dituzte: *Kokeriak eta petrolio fintzea*, %11,2rekin; *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire egokitua eta Industria kimikoa*, %4,2rekin kasu biotan. Alderantziz, jaitsierak edo hazkunde txikiagoak sektore hauek izan dituzte: *Altzariak, beste manufaktura-industria batzuk; konponketa eta instalazioa*, %0,9ko jaitsierarekin; *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak*, %0,4ko igoerarekin; eta *Elikaduraren, edariaren eta tabakoaren industria*, %0,6ko igoerarekin.

Ondasunen talde handien prezioen aldakuntza urte arteko aldian positiboa izan da horientzat guztientzat. *Energiaren* prezioak %8,7 gehitu dira, *Bitarteko ondasunenak* %3,1 eta *Ekipo-ondasunenak* %1,2. *Kontsumo-ondasunenak* %0,7 igo dira; horien artean, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak* %0,8 gehitu dira, eta *Iraunkorrenak* %0,7.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2018ko Azaroa

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2018aza / 2018urr	2018aza / 2017aza	2018aza / 2017abe
INDIZE OROKORRA	111,1	-0,1	3,2	3,1
Sektore-banaketa				
Erauzketa industriak	93,0	-1,0	2,1	2,9
Manufaktura-industria	108,7	-0,7	3,1	3,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	129,5	3,7	4,2	3,9
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	107,1	0,1	0,7	0,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	101,3	0,0	0,7	0,6
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	109,2	0,1	0,8	1,0
Ekipo-ondasunak	108,8	0,1	1,2	1,2
Bitarteko ondasunak	108,7	-0,2	3,1	2,8
Energia	120,2	-1,0	8,7	8,0

Oinarria 2010=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62